

CARITASEN KANPAINA

2022.eko EKAINaren 19a

KRISTOREN GORPUTZ ETA ODOL GUZTIZ SANTUA (C)

Maitasunaren eguna: “Tu acción solidaria, esperanza comunitaria”
“Zure ekimena guztion itxaropena”

Liturgia lagungarriak

Atarikoak:

- ✚ Gogoratu, lagungarri honeek, luzera eta hizkuntzari dagokienez, alkarte bakotxaren ingurua-barretara egokitu behar doguz.
- ✚ Lehen Eguen Santuz ospatzen zan Senide Maitasunaren Egunaren sena jasoten dauan Maitasunaren eguna da honako hau.
- ✚ Ondo legoke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan beren-beregi parte hartzea.
- ✚ Gaurko eguna, egokia da eukaristia liturgia bereziki zaintzeko: opariaren aurkezpena (altararen behealdean itziko dogun batutako dirua barru –ez ete da egokiagoa dirua batu aurreko oharra patxadaz irakurri ondoren batzen hastea?-), eukaristia-otoitza erantzunak abestuz, ogia zatitzea “Jaungoikoaren Bilbotsa” abesten dan bitartean, komuninoa.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Eukaristia ospatuko dogu domekero lez. Gaur, batzar honen oinarrian sakonago hausnartuko dogu, izan be, bere burua azkeneraino emon eban Kristoren maitasunaren jaia ospatzeko batu gara. Jauna bera agertuko jaku bere Gorputz eta Odolean. Eukaristia bakotxean, bere heriotza gogoratzen dogu eta Jaunaren sentimentu eta jarrerak eguneratzen doguz.

Maitasunaren egun honetan, “zure ekimena guztion itxaropena” dinosku Caritasek. Horixe da gure alkarteetan ondo ezagutzen doguzan Caritaseko boluntarioez esan daikeguna. Borondatezko jarduna itxaropenezko zeinu da

CAMPAÑA DE CÁRITAS

19 de JUNIO de 2022

SANTÍSIMO CUERPO Y SANGRE DE CRISTO (C)

Día de Caridad: “Tu acción solidaria, esperanza comunitaria”
“Zure ekimena guztion itxaropena”

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✚ Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- ✚ Este es el Día de Caridad que recoge también el sentido del Día del Amor Fraternal que antes se celebraba el Jueves Santo.
- ✚ Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones.
- ✚ Hoy es un día apropiado para cuidar especialmente la liturgia eucarística: la presentación de los dones (incluida la colecta, que se deja a los pies del altar -¿convendría no empezar a hacerla hasta que se haya leído pausadamente la monición que la motiva?-), la plegaria eucarística con las aclamaciones cantadas, la fracción del pan mientras se canta “Cordero de Dios”, la comunión.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Como cada domingo, celebramos la eucaristía, pero hoy nos detenemos un poco más a pensar en lo fundamental de nuestra reunión, porque celebramos la fiesta del amor de Cristo, entregado hasta el fin. El mismo Señor se nos hará presente en su Cuerpo y en su Sangre. En cada Eucaristía, anunciamos su muerte y actualizamos los mismos sentimientos y actitudes del Señor.

Cáritas se acerca hoy a nosotros en este Día de Caridad y nos dice: “Tu acción solidaria, esperanza comunitaria”. Es lo que podemos decir a cada persona voluntaria de Cáritas que conocemos bien en nuestras comunidades. El vo-





gizon eta emakume guztientzat, mundu hobea egin daitekela eta apurka-apurka eraikitzen diharduela erakusten daualako. Norberekoikeriaren, axolagabetasunaren eta erosotasunaren laino baltzak uxatzen dituan argia da. Caritasek egiten dauana, egingo dau beharbada beste hainbat erakundek be, baina jardunbidea, egiteko era da benetako bereizgarri eta gure izaeraren barri emoten dau. Horregaitik, eskaintza eta alkartasunezko eredu pozgarri eta adoretua, originala da, Caritasen berariazko erdua. Itxaropena, misinorako poz eta maitasunaren iturria.

Abestuz ekingo deutzagu ospakizunari.

SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Jauna, zerutik jatsi dan ogi bizia, zuekin.

DAMU OTOITZA

Domekako eukaristia, Kristogaz bat egitearen esperientzia da. Honen maitasunak, gainera, sinisten dogunon bihotza ikutzen dau, lagun hurkoaganako maitasuna biztuz gudan. Prestatu gaitez an topaketa horretarako.

Gosetiak asetzeko ogiak ugaltu zenduza-na: Erruki, Jauna.

Aberats izanda, gu aberasteko behartsu egin zinana: Kristo, erruki.

Zeure biziaz gu elikatzeko ogi bihurtu zinana: Erruki, Jauna.

OHARRA 1. IRAKURGAIRI (HAS 14, 18-20)

Melkisedek eta Abraham gizon bikain eta esanguratsuek topo egin eta alkar onartzen dabe. Ez dago lehiarik, eskaintza eta bedeinkapena baino. Ogi eta ardaoak sakrifizio baketsua ospatzeko balio dabe. Eukaristiaren aurrerapena da.

luntariado es signo de esperanza para todas las personas porque demuestra que es posible un mundo mejor que lo va haciendo realidad. Es luz que disipa la oscuridad del egoísmo, la indiferencia y la comodidad. Lo que hace Cáritas puede que otras entidades lo hagan también, pero el modo como lo hace habla de lo que realmente somos. Por eso el estilo que inspira el modelo gozoso y animoso de entrega y solidaridad es original, es propio de Cáritas. La esperanza, fuente de la alegría y el amor con que vivimos la misión.

Nos unimos en el canto e iniciamos la celebración.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, pan vivo que ha bajado del cielo, esté con vosotros.

ACTO PENITENCIAL

La eucaristía dominical es la experiencia de un encuentro personal con Cristo, cuyo amor toca el corazón de quienes creemos, suscitando en nosotros el amor por el prójimo. Preparémos para este encuentro.

Tú que multiplicaste los panes para saciar a los hambrientos: Señor, ten piedad.

Tú, que, siendo rico, te hiciste pobre para enriquecernos: Cristo, ten piedad.

Tú que te hiciste pan para alimentarnos con tu propia vida: Señor, ten piedad.

MONICIÓN 1ª LECTURA (GN 14,18-20)

Melquisedec y Abraham dos figuras extraordinarias y significativas, se encuentran, se acogen mutuamente. No hay rivalidad, sino ofrenda y bendición. El pan y el vino sirven para celebrar un sacrificio pacífico. Es anticipo de la Eucaristía.



OHARRA 2 IRAKURGAIARI (1 KOR 11, 23-26)

Bigarren irakurgaiak eukaristia-tradiziorik zaharrena jasoten dau. Jesusek bizia emotera deroan maitasunaren zeinu bihurtu ebazan ogia eta ardaoa. Komulgatzen dogun bakoitzean, maitasun horrez bete behar dogu.

OHARRA EBANJELIOARI (LK 9, 11B-17)

(Aleluiaren aurretik)

Ogien ugalketa be eukaristia-zeinua da. Kristok ogia zatitzen eta ugaltzen dauanean, bere gorputzean pentsatzen dihardu. Munduko gosetien aldeko maitasunezko konpromisoa be bada. Benetan behartsuenen lekua hartuko bagendu, gose guztiak, ogi zein duintasunarenak, ase egingo litzatekez.

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Egin deiogun otoitz Jaungoiko guztiz errukitsuari, beti entzuten gaituala jakinda.

1. Eleizearen eta eleiztarron alde; banatzea, besteez arduratzea, errukitsu izatea... ezinbestekoak dirala sentitu daigun. Eskatu deiogun Jaunari.

2. Caritasen alde; boluntario asko izan daian eta honeek euren lan apal eta xumeagaz, gizon eta emakume guztiak anai-arreba doguzala eta guztiok duintasun eta osotasun bera dogula ikusten lagundu deiguela. Eskatu deiogun Jaunari.

3. Langabetuen eta krisiaren ondorenak jasaten dabezaren alde; senide maitasunaren egun honek, gure ondasunak beharrezanean dagozanakaz erdibanatzeari esker, itxaropenean irauten lagundu deien. Eskatu deiogun Jaunari.

4. Eukaristia ospatzeko batu garanon alde; Kristoren Gorputz eta Odola hartuz, zuzentasunaren alde egin daigun, geure burua aldatuz eta batasuna eta Erreinuaren eraikuntza ekarriko dabenekin eginez eta erabakiak hartuz. Eskatu deiogun Jaunari.

Entzun, Aita, gure otoitza; Jesukristo betiko biziaren ogiaren gose izan gaitetzala beti. Errege bizi da eta gizaldi eta gizaldietan.

MONICIÓN 2ª LECTURA (1 KOR 11,23-26)

La segunda lectura recoge la más antigua tradición eucarística. Jesús hizo del pan y del vino un signo de un amor que lleva a dar la vida. Cada vez que comulgamos debemos llenarnos de ese amor.

MONICIÓN EVANGELIO (LC 9,11B-17)

(Antes del Aleluya)

La multiplicación de los panes es también un signo eucarístico. Cuando Cristo parte y multiplica el pan, está pensando en su propio cuerpo. Es también un compromiso de caridad con los hambrientos del mundo. Si realmente nos pusiéramos en el lugar de los más pobres, todas las hambres podrían ser saciadas, las de pan y las de dignidad.

ORACIÓN UNIVERSAL

Oremos a Dios, rico en misericordia, en la plena confianza de que siempre nos escucha.

1. Por la Iglesia y quienes la formamos, para que sintamos la urgencia de compartir, de preocuparnos unos por otros, de animar la tarea caritativa. Roguemos al Señor.

2. Por Cáritas, para que en ella sean muchas las personas voluntarias, que, con su tarea humilde y sencilla, nos ayuden a ver a toda persona como hermana, como hermano, y a saber valorar su dignidad e integridad. Roguemos al Señor.

3. Por las personas en paro y quienes no acaban de salir de las consecuencias de todo tipo causadas por la pandemia, para que este día del amor fraterno les sostenga en la esperanza de un futuro gracias al compartir nuestros bienes con quienes pasan necesidad. Roguemos al Señor.

4. Por quienes nos reunimos a celebrar la eucaristía, para que, al participar del Cuerpo y Sangre de Cristo, trabajemos por la paz y la justicia con nuestros cambios personales, gestos y decisiones que nos unen y construyen Reino. Roguemos al Señor.

Escucha, Padre, nuestra oración, y haz que tengamos siempre hambre de Jesucristo, pan de vida eterna. Él, que vive y reina por los siglos de los siglos.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Gure konpromisoa bete daigun, besteakaz eta besteentzat izanez izateko deia jasota pozarren; gure doeak doan eskaini eta erdibana-tzeagaitik pozarren; gure pentsatzeko, izateko eta bizitzeko moldea zalantzan jarriz alkar aberastea dakarren bat egiteagaitik pozarren... Orain batuko dogun dirua Caritasen egitasmoetarako izango da. Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

JAUNARTZE OSTEKO ISILTASUNEAN

Frantzisko aita santuaren “Fratelli tutti” entziklikatik:

«Bizitzea egokitu jakun sasoi honetan, pertsona baktaren duintasuna autortuz, danon artean, mundu osoan senidetasuna hedatzeko nahia barriro biztea irrikatzen dot. Danon artean: Horra hor sekretu ederra amets egiteko eta gure bizitza abentura eder bihurtzeko. Inork ezin dau bakarka borrokatu bizitza aurrera atarateko. [...] Eutsi egingo gaituan, laguntza emongo deuskun, alkarri aurrera begiratzen laguntzeko eremu izango dan alkartea behar dogu. Bai garrantzitsua dala alkarregaz amets egitea! [...] Bakarrik joan ezkerro, ameskeriak izateko arriskua dago, hau da, ez dagoana ikusteko arriskua; ametsak beste batzukaz batera eraikitzen dira. Egin daigun amets gizadi bakar lez, giza haragi bera daben ibiltari lez, danok babesten gaituan lur bereko semealaba lez, baktxa bere fede edo uste sendoen aberastasunagaz, baktxa bere ahotsagaz, danok anai-arreba». (8 zenb.)



MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

Pongamos en marcha nuestro compromiso con el gozo de sentirnos llamados y de ser, siendo con los demás y para los demás; el gozo de ofrecer y compartir nuestros dones gratuitamente, el gozo del encuentro que nos enriquece mutuamente cuestionando nuestra manera de pensar, de ser y de vivir... La colecta que ahora realizamos será destinada a Caritas diocesana. Gracias por vuestra generosidad.

EN SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

De la carta encíclica “Fratelli tutti” del papa Francisco:

«Anhele que en esta época que nos toca vivir, reconociendo la dignidad de cada persona humana, podamos hacer renacer entre todos un deseo mundial de hermandad. Entre todos: He ahí un hermoso secreto para soñar y hacer de nuestra vida una hermosa aventura. Nadie puede pelear la vida aisladamente. [...] Se necesita una comunidad que nos sostenga, que nos ayude y en la que nos ayudemos unos a otros a mirar hacia delante. ¡Qué importante es soñar juntos! [...] Solos se corre el riesgo de tener espejismos, en los que ves lo que no hay; los sueños se construyen juntos. Soñemos como una única humanidad, como caminantes de la misma carne humana, como hijos de esta misma tierra que nos cobija a todos, cada uno con la riqueza de su fe o de sus convicciones, cada uno con su propia voz, todos hermanos». (n. 8)

